“80ko hamarkada” izango da 2026ko Inauterietako gaia

Parte-hartze prozesuaren bigarren fasean, jasotako 539 botoetatik 462 balioztatu dira; Inauteriak otsailaren 12tik 16ra izango dira

Lasarte-Oriako Udalak gaur eman du ezagutzera 2026ko Inauterietako gai nagusia aukeratzeko parte-hartze prozesuaren emaitza, **Nagore Durán** Herritarren Partaidetzako zinegotziak eta **Txus Alonso** Jaietako zinegotziak eskainitako prentsaurrekoan.

Prozesuaren bigarren fase honetan, konpartsek proposatutako **bost gai finalisten** artean aukeratu behar zuten herritarrek. Guztira **539 bozketa** jaso dira, eta horietatik **462 baliozkoak** izan dira, beharrezko egiaztapenak egin ondoren. Guztira **77 bozketa ez dira zenbatu**, ezarritako baldintzak ez dituztelako betetzen.

Jasotako bozketa guztietatik **9 modu fisikoan** egin ziren eta gainontzekoak udal webgunean eskuragarri dagoen **online formularioaren bidez**.

Hona hemen botoen azken zenbaketa:

- **Munduko inauteriak**: 43 boto
- **Zirkua**: 97 boto
- **80ak**: 130 boto
- **Piratak**: 98 boto
- **90eko hamarkadako telesailak**: 94 boto

Beraz, gai irabazlea eta **Lasarte-Oriako 2026ko Inauterietako** protagonista “**80ko hamarkada**” izango da, babes gehien lortu ondoren.

Emaitza **astearte honetan, azaroaren 18an**, egindako bileran aurkeztu zitzaien ofizialki konpartsei, eta parte-hartze prozesuaren **emaitza berretsi zen**.

Nagore Duranek nabarmendu duenez, “*beste behin ere, herritarrek gogo biziz erantzun diote gure jaien espiritu parte-hartzailea bizirik mantentzea helburu duen proposamenari*”, eta eskerrak eman dizkie “*konpartsen eta bozketa honetan parte hartu duten pertsona guztien inplikazioagatik*”.

Txus Alonsok, bere aldetik, honakoa adierazi du: “*Inauteriak lasarteoriatarren jai maitatuenetako bat dira, eta emaitza honek konpartsekin batera lan egiten jarraitzera animatzen gaitu, dibertsioa, sormena eta parte-hartzea uztartzen dituen jai egitaraua diseinatzeko*”.

Lasarte-Oriako Inauteriak 2026ko otsailaren 12tik 16ra ospatuko dira. Udalak konpartsei eta egitaraua antolatzen laguntzeko interesa duten **pertsona guztiei** dei egin die **abenduaren 2an, asteartean, 18:30ean, udal Gaztelekuan** egingo den bilera irekira.

“Los 80” será el tema del Carnaval 2026

En la segunda fase del proceso participativo se han validado 462 votos de los 539 recibidos; el Carnaval se celebrará del 12 al 16 de febrero

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria ha dado a conocer hoy el resultado del proceso participativo para la elección del **tema principal del Carnaval 2026**, en una rueda de prensa ofrecida por la concejala de Participación Ciudadana, **Nagore Durán**, y el concejal de Fiestas, **Txus Alonso**.

En esta **segunda fase del proceso**, la ciudadanía debía elegir entre los **cinco temas finalistas** propuestos por las comparsas. Se han recibido un total de **539 votaciones**, de las cuales **462 han sido válidas**, una vez realizadas las comprobaciones oportunas. Un total de **77 votaciones no se han contabilizado** por no cumplir los requisitos establecidos.

De todas las votaciones recibidas, **9 se realizaron de forma física** y el resto a través del formulario **online** disponible en la web municipal.

El recuento final de votos ha sido el siguiente:

- **Carnavales del mundo:** 43 votos
- **Circo:** 97 votos
- **Los 80:** 130 votos
- **Piratas:** 98 votos
- **Series de los 90:** 94 votos

Por tanto, el tema ganador y que protagonizará los **Carnavales 2026 de Lasarte-Oria** será **“Los 80”**, tras obtener el mayor número de apoyos.

El resultado fue presentado oficialmente a las comparsas en una reunión celebrada este **martes 18 de noviembre**, en la que se **ratificó el resultado** del proceso participativo.

Nagore Durán ha destacado que *“una vez más, la ciudadanía ha respondido con entusiasmo a una propuesta que busca mantener vivo el espíritu participativo de nuestras fiestas”*, y ha agradecido *“la implicación de las comparsas y de todas las personas que han tomado parte en esta votación”*.

Por su parte, **Txus Alonso** ha señalado que *“el Carnaval es una de las fiestas más queridas por las y los lasarteoriatarras, y este resultado nos anima a seguir trabajando junto a las comparsas para diseñar un programa festivo que combine diversión, creatividad y participación”*.

Los **Carnavales de Lasarte-Oria** se celebrarán del **12 al 16 de febrero de 2026**. El Ayuntamiento ha emplazado a las comparsas y a todas las personas interesadas en colaborar en la organización del programa a una **reunión abierta** que se celebrará el **martes 2 de diciembre, a las 18:30 horas, en el Gazteleku municipal**.